# Aldaketaren herriak: gobernuak eraitsita, alternatiba eraikitzera

**Ez dira bakarrak, baina bai oso adierazgarriak: duela astebete EH Bilduren gorakada orokorrean aldaketa politikoa ordezkatu zuten zortzi udalerritako zortzi hautagaiak dira. Batzuek eskura dute jadanik beraien udalen giltza, beste batzuek zailagoa izango dute gobernatzeko.**

**OION** • José Manuel Villanueva, de Cádiz al principal Ayuntamiento de Rioja Alavesa

## «El pueblo quiere un gobierno de EH Bildu en Oion»

**Oion (Araba)** Habitantes: 3.551

| | 2023 | 2019 |
|---|---|---|
| | Concejales (votos) | Concejales (votos) |
| EH Bildu | **5 (504)** | 2 (347) |
| PNV | **3 (378)** | 4 (506) |
| PP | **2 (255)** | 2 (270) |
| PSE | **1 (192)** | 2 (304) |
| SI/Bai | **-** | 1 (125) |

**Ion SALGADO** | GASTEIZ

EH Bildu se convirtió el 28M en la primera fuerza política de Oion, la principal localidad de Rioja Alavesa. Jose Manuel Villanueva encabezó la lista soberanista que ha pasado de 347 a 504 votos, logrando cinco ediles en un pleno formado por once concejales.

«Hemos analizamos el resultado y vemos que tenemos una base social que va ampliándose poco a poco. Y resulta que, según los análisis que tenemos, mucha gente del PP y del PSE nos ha votado a nosotros», señala, incidiendo en que el voto a Juntas Generales ha sido diferente.

Villanueva, que nació hace 57 en Cádiz, atribuye los resultados al «buen trabajo que hemos hecho, a la seriedad que hemos aportado al Ayuntamiento, a nuestras políticas, que son siempre políticas sociales, y a la mala gestión del equipo de Gobierno», formado por PNV y PSE.

«Siempre he dicho que el equipo de Gobierno ha estado enrocado en una cerrazón incomprensible. No han pensado más que en ensalzar a sus siglas políticas y no han mirado al vecino, que es lo más importante», destaca en declaraciones a GARA.

En cuanto a los retos de futuro, destaca que el primero será poder gobernar Oion, «una tarea harta difícil, puesto que todos sabemos que el PNV y el PSE tienen un acuerdo común». Los dos partidos suman cuatro ediles en el pleno y necesitan el apoyo de los dos cargos electos del PP.



«Va a ser un equipo en minoría, en una aplastante minoría», señala antes de destacar el malestar existente entre la ciudadanía. «Los vecinos están con nosotros, están contentos, quieren un cambio, quieren políticas nuevas, pero no lo van a conseguir», apunta augura un pleno «muy duro» el 17 de junio.

Villanueva, que llegó hace doce años al Consistorio, seguirá trabajando en clave social, reclamando servicios sanitarios en una comarca que no cuenta con un hospital ni con oficina de la Seguridad Social. Defendiendo los intereses de los bodegueros alaveses y las energías renovables, «pero no de cualquier manera».



**LAUDIO** • Ainize Gastaka, parte hartzea sustatu eta herri aktibazioa bilatzen duen hautagaia

## «Helarazi dugun ilusioa eta gogoa dago emaitzen atzean»

**Laudio (Araba)** Habitantes: 18.026

| | 2023 | 2019 |
|---|---|---|
| | Concejales (votos) | Concejales (votos) |
| EH Bildu | **7 (3.087)** | 5 (2.448) |
| PNV | **6 (3.058)** | 7 (3.581) |
| OMNIA | **3 (1.365)** | 3 (1.807) |
| PSE | **1 (872)** | 2 (1.035) |

**Nerea GOTI** | LAUDIO

Azken hamarkadetan ezker independentista eta EAJ bi legealdiko ziklotan txandakatu izan dira Laudioko alkatetzan. Azken udal emaitzek joera hori apurtu dute. Jeltzaleek 500 boto baino gehiago galdu dituzte haien bigarren legealdia izan behar zuen honetan, eta indar bozkatuena EH Bildu izan da. Emaitza horien atzean, nagusiki «ilusioa eta gogoa» transmititu duen zerrenda eta proiektua dagoela uste du aldaketa lideratzen duen Ainize Gastaka gazte eta ikasle mugimenduan ibilitako 37 urteko abokatuak.

Beste gako batzuk aipatu ditu. Azken lau urteetan kaleetatik urrun egon den EAJ eta PSEren udal gobernua marraztu du koaliziokideen balorazioak, «bulego politika egin» eta «gehiengoaren arrabolaren» legea aplikatu duena, eztabaida politikoari tarte oso txikia utziz. Horren erakusgarri da sarritan zinegotziek udal erabakien berri komunikabideen bidez eduki izana. Udal hiltegiaren itxiera gogoratu du kudeaketa horren «puntu beltz» gisa: «Oraindik ulertzen ez ditugun arrazoiengatik itxi zuten, baserritarrak oraindik egoera askoz txarrago batean utziz, konponbiderako asmo barik».

Herritarren babesarekin, talde lana eta «gogoa eta lan egiteko gaitasuna eta grina» uztartuko dituen proiektuak ardatz nagusi bat du: herritarren parte hartzea bultzatzea, «erabakiak ez alderdienak bakarrik, herritarrenak ere izan daitezen, herria aktibatu eta proiektuek bizitza luzeagoa izan dezaten».